

Jarduera memoria 2023



Lanbide

EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA
SERVICIO PÚBLICO VASCO DE EMPLEO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO



Edukia

Sarrera	4	4. Azokak eta ekitaldiak	30
Aurkezpena	5	4.1. Merkalan azoka	31
1. Lanbide - Euskal enplegu zerbitzua	6	4.2. Feslan azoka	33
1.1. Esparru juridikoa	7	4.3. Proiektu Esperimentalen Jardunaldia	34
1.2. Esparru estrategikoa	8	5. Lankidetzaren estatuan eta nazioartean	36
1.3. Administrazio Kontseilua	9	5.1. Behatokiaren sareak	37
1.4. Prestakuntza-premiak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordea	9	5.2. Eures sarea	38
1.5. Antolamendu-egitura	10	5.3. Erasmus +: ACSOL	39
1.6. Enplegu-bulegoak	12	6. Azterlanak eta estatistikak	40
1.7. Lanerako Orientazio, Ekintzailatza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroa	15	6.1. Lan-merkatua	41
1.8. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak	17	6.2. Hezkuntza-sistema laneratzeko prozesuan txertatzea	42
2. Lanbide Sarean	18	6.3. Gizarte-koheretza	42
2.1. Sare sozialak	19	6.4. Prospektiba kualitatiboa eta kuantitatiboa	43
2.2. Web orria	19	7. Kalitatea eta ebaluazioa	44
3. Lanbideren jarduketak	22	7.1. Programen eta Zerbitzuen Kalitatea	45
3.1. Laneratzeko Aktibatzea	23	7.2. Programen eta Zerbitzuen Ebaluazioa	47
3.2. Enplegurako Lanbide Heziketa	25	8. Lanbide, 2023ko kopuruak: emaitzen laburpena	48
3.3. Prestazioak eta gizarteratzea	26		
3.4. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa	28		

Sarrera

2023. urtean amaitu da 2020an enpleguaren eta inklusioaren arloa eraldatzeko abian ipini zen apustua. Lan-arloko politika aktiboen gaineko eskumena bereganatu zenetik hamabi urte igaro dira Eusko Legebiltzarrak enpleguaren arloko Euskadiko lehen legea onetsi arte. Horrek argi erakusten du zer zaila zen enpleguaren sistema osoa antolatzea, baina baita antolamendu hori ezinbestekoa zela ere.

Urteko memoria (Lanbidek ematen dituen zerbitzuen kopuru bidezko laburpena) aurkeztea azken legegintzaldian sartu diren berrikuntzetako bat da. Legegintzaldi honetan herritarrei kontuak emateko asmoa dago, eta 2024tik aurrera horretan laguntzen ariko da Besaldi-Enplegu eta Inklusioko Politika Publikoen Ebaluazio-organo Independentea, proiektu eta programa guztiak etengabe zuzendu eta hobetu eta hala haien eraginkortasuna handitu ahal izateko.

Memoria honetan arreta jaso duten pertsonen berri ematen da. Bada, lan horren atzean giza talde handia dago, Lanbideko langileen taldea, aldi honetan jakin duena zerbitzu publikoaren egitura-aldaketetara eta zabaldu diren programa berritzaileetara moldatzen; izan ere, lege berria indarrean jartzen denean hedatuko den esku hartzeko eta arreta emateko eredu berriaren aitzindariak izan dira. Berriz ere eskerrak eman nahi dizkiet egin dituzten ahaleginengatik eta erakutsi duten konpromiso publikoarengatik, bai eta Administrazio Kontseiluan buru-belarri aritu diren enpresaburuen elkarteei eta sindikatuei ere.

Laburbilduz, enpleguaren bilakaeraren arrakasta historikoa izan da (inoizko pertsona gehien ari dira lanean, eta eskubideekin), diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duten pertsonen estaldura hobea eta eraginkorragoa da, eta egitura-erreformak onetsi dira: horiek guztiak oinarri ezin hobeak dira puntako zerbitzu publiko modernoa edukitzeko, hain zuzen ere goitik behera aldatzen ari den mundu honetan herritarren eta enpresen beharrezanean erantzuten diena.



Mikel Torres Lorenzo. Eusko Jaurlaritzako lehendakariordea eta
Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburua

Aurkezpena

Dokumentu honen xedea da erakundeei, elkarteei eta herritar guztiei erakustea Lanbidek 2023ko ekitaldian egin duen lanaren laburpena.

Hauexek izan dira 2023. urteko gertaera nagusiak: zeharkako proiektuak bultzatu eta gauzatu dira trantsizio digitalaren prozesuan; esku hartzeko eredua zehaztu da, argia, malgua eta herritarren eta ekoizpen-sarearen beharrezan azkar erantzuten diona; arreta emateko eredu berria zehaztu da, espezializazioan oinarritua eta funtsezko ardatz gisa orientazioa eta prospekzioa ezarri dituen.

Dokumentuak zortzi atal handi dauzka: lehenengoan, Lanbideren esparru juridikoa, esparru estrategikoa eta barne antolamendua azaltzen dira; bigarren, erakusten da Lanbide geroz eta gehiago eta hobeto ari dela online sare sozialen eta web orriaren bidez (besteak beste); hirugarren, azaltzen dira 2023an emandako zerbitzuak, egindako programak eta ezarritako neurriak; laugarren, Lanbidek antolatu dituen azokei eta ekitaldiei buruzko informazioa ematen da, bai eta berak parte hartu duenei buruzkoa ere; bosgarren, Lanbidek kide den Estatuko eta Europako sareetan eta Europako proiektuetan egin duen lana azaltzen da; seigarren, Lanbidek lan-merkatuaz, hezkuntza-sistema laneratzeko prozesuan txertatzeaz, gizarte-kohesioaz eta prospektiba kuantitatiboaz eta kualitatiboaz egin dituen txostenen, analisien eta estatistiken berri ematen da; zazpigarren, erabiltzaileen gogobetetze-mailaren inguruko informazioa ematen da programen eta zerbitzuen kalitateari dagokionez, baita burututako jarraipen eta ebaluazio prozesuen inguruko informazioa ere; azkenik, urteko emaitzen laburpena aurkezten da zenbakitan.

Lanbidek eskerrak ematen dizkie memoria honetan bildutako jardueretan

parte hartu duten eragile guztiei. Halaber, Lanbideren Zuzendaritzak esker ona erakutsi nahi die erakundean ari diren pertsona guztiei, haien lana eta konpromisoa ezinbestekoak izan direlako ezarritako helburuak lortzeko.



Francisco Pedraza Moreno. Lanbideko zuzendari nagusia



1.

Lanbide

Euskal Enplegu
Zerbitzua

1.1. Esparru juridikoa

Lanbide administrazio-erakunde autonomoa da. Nortasun juridiko propioa eta jarduteko erabateko ahalmena dauzka. Gaur egun, Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago. Xedapen hauetan ezartzen dena aplikatzen zaio: **3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa**; Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-erakunde autonomoei aplikatzen zaien araudia; eta **82/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen** (2021. urtean, honen bidez aldatu zen: 156/2021 Dekretua, ekainaren 29koa, zeinaren bidez aldatzen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituen Dekretua).

Esparru juridiko honetan honako helburu hauek ezartzen zaizkio Lanbideri:

- Enplegu egonkor eta kalitatezkoako eskubidearen garapen osoari laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea, eta enpresaren eskakizunei egokituriko langileen beharrianak asetzea, bai eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea ere, betiere esleitzen zaizkion enplegu-politikak kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz.
- Bereziki, produkzio-sarearen egungo eta etorkizuneko eskakizun guztiak ezagutuz, lan-merkatu eraginkorra eta kalitatezkoa eratzea, pertsonen enplegarritasuna eta aldi berean enpresen lehiakortasuna bermatzeko, haien beharrianak erantzunez.
- Bere jardunbidean irizpide zehatz batzuk betetzea, hala nola, gardentasuna, aukera-berdintasuna eta bere ekintzan inor ez diskriminatzea; beste politika publikoekin koherentzia eta arrazionalizazioa bilatzea beti eta bere funtzionamenduan efikazia eta efizientzia etengabe lortzen saiatzea;

tokian tokiko errealitatera egokitzea; bere zerbitzuetan kalitatea eta arreta pertsonalizatua eskaintzea; bere funtzio publikoak doakoak izatea eta etengabe elkarriketan aritzea gizarte-eragileekin.

- Bere zerbitzuen erabiltzaileak artatzeko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

Halaber, **Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak** aldaketa bat sartu zuen kudeaketa-ereduan; ondorioz, Eusko Jaurlaritzak, Lanbideren bidez, bere egin zituen eskubidezko prestazio ekonomikoak izapidetu eta ebatzeko eskumenak; hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria izapidetu eta ebatzeko eskumenak eta gizarteratzeko hitzarmenak prestatu, proposatu, negoziatu, sinatu eta jarraitzeko eskumenak.

2023ko martxoan indarrean ipini zen **14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena**, diru-sarrerak bermatzeko errenta eguneratzeko eta modernizatzeke eta diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko euskal eredu berreraikitzeke. 2023ko azaroan, **173/2023 Dekretua (azaroaren 21ekoa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren Erregelamendua onartzen duena)** onartu zen. 2024ko urtarrilean jarri da indarrean.

Gainera, 2023ko ekitaldian, **15/2023 Legea (abenduaren 21ekoa, Enpleguarena)** onartu zen. Lege hau 2024ko ekainean jarri da indarrean.

1.2. Esparru estrategikoa

2023. urtean Lanbidek estrategia hauen barruan jardun du:

BERPIZTU programa

2020-2024 aldirako Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU programak, 2020ko azaroan onartutakoak, ekonomia eta enplegua suspertzeko Euskadiko apustua jasotzen du. Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien konpromisoa da “behar den guztia egitea ahalik eta enplegu gehien mantentzeko eta galdutako enplegu guztia berreskuratzeko”.

Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 (EEE 2030)

“EEE 2030. Euskadiren garapen ekonomiko eta soziala bultzatzeko kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna” aurrekaririk gabeko krisi-testuinguru batean egin zen, COVID-19aren pandemiaren eraginez. 2021ean onartu zen.

Estrategiak Euskadin 2030erako ezartzen duen enplegurako ikuspegia anbizio handikoa da: lan-merkatu horrek Euskadiren garapen sozial eta ekonomikoan laguntzen du, iraunkorra eta berdintasunezkoa da, kalitatezko enplegu-aukerak eskaintzen ditu ekitatean, gizarteratzean eta giza garapenean, enplegu-politika aktiboek eskubide subjektiboaren izaera ematen die, eta, eskubide hori betetzeko, enpleguko eskaintzei eta eskaerei eta pertsonen eta enpresen beharrei erantzun egoki eta azkarrak ematen dizkien EAEko Enplegu Sistema bat eratzen du.

Enpleguaren Plan Estrategikoa (2021-2024)

2021-2024 aldirako Enpleguaren Plan Estrategikoaren xedea EEE 2030aren helburuak eraginkor bihurtzea da, hartara pandemia osteko berpizkunde sozioekonomikoan laguntzeko, hiru trantsizioak sustatzeko (digitala, energetiko-

klamatikoa eta demografikoa), eta gizarte kontratu berri baterako enplegu inklusibo eta kalitatezkoa indartzeko, ulerturik erronka nagusia ez dela soilik enplegu gehiago sortzea, baizik eta kalitatezko enplegua sortzea, pertsona guztien laneratze eta gizarteratze osoa ahalbidetzeko moduan. Gizarteragileen artean beharrezkoak diren orekak lortu nahi dira, bizi dugun ekonomia lehiakor eta globalizatuan asmo hau posible izan dadin.

Lanbide Hobetzen. Trantsizio eta Hobekuntza Plana

“Lanbide hobetzen. Trantsizio eta Hobekuntza Plana” 2021eko azaroan onartu zen. Beraren helburu nagusia da lan-merkatuaren kalitatea dinamizatu eta hobetuko duen Lanbide bat lortzea, arreta berezia eskainiz egoera eta kolektibo ahulenei, izapideetan eta dirulaguntzetan zentratutako erakundea izatetik herritarrei eta enpresei zerbitzuak ematen dizkien erakunde bat izatera igarotzeko. Beraz, politika aktiboek garrantzia hartu behar dute politika pasiboan estaldura kaltetu gabe, emandako zerbitzuak etengabe ebaluatuz eta birdiseinatuz.

Lanbideren Plan Estrategikoa 2022-2026

2022 – 2026 aldirako Lanbideren Plan Estrategikoak Lanbide Hobetzen planean ezarritako eraldatze-eredua zabalitzen du. Plan estrategiko hori egin denean egoera oso konplexua izan da. Beraren helburuak honako hauek dira: batetik, erantzuna ematea herritar eta enpresa erabiltzaileen eta EAEko gizarte osoaren eskaerei; bestetik, erraztasunak ematea Lanbide-Euskal Enplegua eraberritzeko, arreta gehiago jar dezan zerbitzuak ematean eta azkarrago jardun dezan.

Planaren egiturari lau ardatz daude; ardatz horiek 13 lerro estrategikotan eta 30 proiektu estrategikotan zehazten dira.

Next Generation EU

Batasunaren Next Generation EU proiektua aldi baterako tresna da, pandemiaren aurrean Europar Batasuneko herrialdeak suspertzen laguntzeko asmoa duena.

3 zutabetan hedatzen da, Europa ekologiko, digital eta erresiliente batean inbertitzeko helburu komunarekin. Zenbait tresnaren bidez egituratzen da; besteak beste, Susperraldirako eta Erresilientziarako Mekanismo berri baten bidez. Mekanismo horren helburua trantsizio ekologiko eta digitalarekin eta ekonomia nazionalen erresilientziarekin lotutako inbertsioak eta erreformak babestea da.

1.3. Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua Lanbideren gobernu-organo goren da (hirutarikoa, paritarioa eta erabakitzailea) eta hamabost kidek osatzen dute.

2023ko ekitaldian, bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburu Idoia Mendia Cueva izan da Kontseiluko burua. Gainerako kideak honako hauek izan dira: Enplegu eta Gizarteratzeko sailburordea, Alfonso Gurpegui Ruiz, Kontseiluko burordea; Lanbideko zuzendari nagusia, Francisco Pedraza Moreno, idazkaria; 12 kontseilukide, bi Eusko Jaurlaritzak izendatuta, bost EAEko sindikatu nagusien ordezkari gisa eta bost EAEen ordezkartza handiena duten sektorearteko enpresaburu-elkarteen ordezkari gisa.

2023. urtean 13 saio egin dira (5 arrunt eta 8 aparteko), Administrazio Kontseiluak Lanbideren Estatutuen arabera ezarrita dauzkan eginkizunak burutzeko; hain zuzen ere, honako hauek, batez ere: Lanbideren plan orokorrak eta jardueren programak onartzea, enpleguaren eta prestakuntzaren arloko

lankidetzak-hitzarmenak eta dirulaguntza-deialdiak onartzea, eta araugintzako proposamenak egitea Lanbideren eginkizunetan eragina duten gaiei buruz.

1.4. Prestakuntza-premiak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordea

Prestakuntza-premiak Aztertu eta Hautemateko Aholku Batzordea Lanbideko aholkularitza-organoa da, hirutarikoa: kide batzuk Administrazioaren ordezkariak dira eta beste batzuk EAEko enpresaburu-elkarte eta sindikatu nagusien ordezkariak (bakoitzaren ordezkartza-indarraren arabera).

Helburu honetarako sortu zen: lanerako prestakuntza-programetarako prestakuntzako jarraibideak eta lehentasunak proposatzea, prestakuntza-premiak aztertu eta detektatu ondoren, eta horien bitartez gero politika aktiboak jarduera ekonomikoak sortzen dituen aukera berrietara egokitzea.

2023ko ekitaldian hauek izan dira bere jardunaren ardatzak:

- 2022an eratu zen informazio-sistemaren adierazle nagusiak kontrolatzea eta aztertzea, txosten hau egiteko: "EAEko lan-merkatuko prestakuntza-eskaeren detekzioa - 2023". Txosten hori ekitaldian zehar egin eta baliozkotu da.
- Euskadiko enpresen kontratatze eragozpenak eta prestakuntza-premiak detektatzeko inkestaren bigarren ekinaldia antolatzea. Horri esker, gero 2024. urteko txostena egingo da.

1.5. Antolamendu-egitura

Lanbideren Zerbitzu Zentralen bulegoa Gasteizen dago; gainera, lanerako orientazio, ekintzailatza, laguntza eta berrikuntza zentroa dauka (hau ere Gasteizen), lurraldeko koordinazioko hiru unitate (bat lurralde historiko bakoitzaren hiriburuan) eta 43 enplegu bulego: 42 bulego lokal EAE osoan eta bulego birtual bat.

Zuzendaritza Nagusiaren mendetasun organiko eta funtzionalaren azpian, lanbiden lau zuzendaritza hauek daude:


- Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza
José Antonio Carrillo Navas
- Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritza
María Teresa Martínez Granado
- Enplegurako Lanbide Heziketaren Zuzendaritza
Juan Carlos Ibarrola Sáenz de Ugarte
- Prestazioen eta Inklusioaren Zuzendaritza
Sara Buesa Rodríguez



Lanbideren Zerbitzu Orokorren eraikina

Lanbideren organigrama 2023

Jarraian Lanbideren organigrama osoa azalduko da; bertan zuzendaritza bakoitzari atxikitako zerbitzu funtzionalak zehazten dira.



1.6. Enplegu-bulegoak

Tokiko enplegu-bulegoak

Aurreko puntuan esan den bezala, Lanbidek zuzeneko arretarako 42 bulego dauzka hiru lurralde historikoetan: 20 Bizkaian, 14 Gipuzkoan eta 8 Araban.

2023. urtean jarduketa hauek egin dira:

- Lanbide Hobetzen planaren programa pilotuaren lehen fasea ezarri da: Lanbideren kudeaketa-prozedurak egokitu dira eta bulegoen barruko eremuak beste era batera antolatu dira, Lanbide Hobetzen planean ezarritako arreta-eredu berria aplikatzeko. Bulego hauetan egin da: "Lanbide - Bilbo Rekalde", "Lanbide - Bilbo Txurdinaga", "Lanbide - Barakaldo Gurutzeta", "Lanbide - Donostia Antiguoa", "Lanbide - Lasarte Oria" eta "Lanbide - Gasteiz Salburua".
- "Lanbide - Bilbo-Santutxu" bulegoa goitik behera eraberritzeko lanak hasi dira (2024ko ekainerako amaituko direla aurreikusten da).
- Bilboko Zarandoa etorbideko 13. zenbakian dagoen lokala atontzeko lanen proiektua egin da. Asmoa da gaur egungo "Lanbide - Bilbo-San Inazio" bulegoa (Katalunia 1-3) bertara aldatzea.

- "Lanbide - Oion" bulegoa goitik behera eraberritzeko lanen proiektua egin da.
- "Lanbide - Errenteria" eta "Lanbide - Tolosa" bulegoetako aire-girotzeko sistemak eraberritu dira.
- "Lanbide - Zalla" bulegoa lekuz aldatu da: orain Zallako Jose Etxezarraga kaleko 1. zenbakian dago.



Lanbide Gernika - Lumoko bulegoa

Lanbideren bulegoak lurralde historiko bakoitzeko

BIZKAIA

Lanbide *Barakaldo Beurko*

Lanbide *Barakaldo Gurutzeta*

Lanbide *Basauri Urbi*

Lanbide *Basauri – Uribarri*

Lanbide *Bilbao Mazarredo*

Lanbide *Bilbao Miribilla*

Lanbide *Bilbao Rekalde*

Lanbide *Bilbao San Inazio*

Lanbide *Bilbao Santutxu*

Lanbide *Bilbao Txurdinaga*

Lanbide *Durango*

Lanbide *Erandio*

Lanbide *Gernika – Lumo*

Lanbide *Getxo*

Lanbide *Mungia*

Lanbide *Ondarroa*

Lanbide *Portugalete*

Lanbide *Santurtzi*

Lanbide *Sestao*

Lanbide *Zalla*

ARABA

Lanbide *Agurain*

Lanbide *Amurrio*

Lanbide *Laudio – Llodio*

Lanbide *Oion*

Lanbide *Vitoria – Gasteiz Salburua*

Lanbide *Vitoria – Gasteiz Zabalgana*

Lanbide *Vitoria – Gasteiz Zaramaga*

Lanbide *Vitoria – Gasteiz Zumakera*

GIPUZKOA

Lanbide *Arrasate-Mondragón*

Lanbide *Azpeitia*

Lanbide *Beasain*

Lanbide *Donostia Intxaurrondo*

Lanbide *Donostia – San Sebastián Antiguo*

Lanbide *Donostia – San Sebastián Gros*

Lanbide *Eibar*

Lanbide *Elgoibar*

Lanbide *Errenteria*

Lanbide *Irun*

Lanbide *Lasarte-Oria*

Lanbide *Tolosa*

Lanbide *Zarautz*

Lanbide *Zumarraga*

Bulego birtuala

2023ko amaierarako Lanbideren bulego birtuala erabat abiatuta egon da. Azaroan plantilla handitu da: hamabi orientatzaile plaza sortu dira. Horrenbestez, honela geratu da egituratuta Bulego Birtualeko lantaldea: 15 orientatzaile, enplegu eta prestakuntzako teknikari bat, administrari bat eta zerbitzuaren arduraduna. Lantaldea, handitu egin denez, Lanbideren Zerbitzu Orokorren eraikineko areto handiago batera aldatu behar izan da.

Bulego Birtualak Lanbidera jotzen duten enpresei zein herritarrei ematen dizkie zerbitzuak. 2023ko ekitaldian Bulego Birtualaren zerbitzuak baliagarri egon dira Lanbideren web orrian identifikatutako enpresa guztientzat. Aldiz, herritarren esku egon diren zerbitzuak mugatuta egon dira oraindik: Bulego Birtualak Lanbide - Agurain eta Lanbide - Oion bulegoen eragin-eremuetako herritarrei baino ez dizkie eskaini zerbitzuak; zerbitzuak kasuan kasuko enplegu-bulegotik edo Nire Lanbidenet-eko profil pertsonaletik eskatu behar izan dira.

Enpresei kanal anitzeko laguntza eman zaie lanbide-profilak bilatzeko zerbitzuaren inguruko galderak egiteko. Hain zuzen ere, honako kanal hauek erabili dira: banakako hitzorduak bideokonferentzia bidez, enpresen txata eta kontsultak egiteko formularioa. Txatean, arreta berehalakoa da; Lanbideren arreta-ordutegi osoan dago irekita.

Herritarren arretari dagokionez, banakako orientaziorako zenbait zerbitzu eman dira, ohi bezala: enplegurako orientazioa, curriculum vitae-a aldatzea, prestakuntzarako aholkularitza eta eskarirako elkarrizketak, besteak beste. Bulego Birtualera esleitzen diren erabiltzaileek Lanbideren web orriaren edo harremanetarako telefonoaren bidez eskatu ditzakete hitzorduak, eta bideokonferentziaz ematen zaie arreta.

Gainera, orientazioko talde-tailerrak indartu dira: tailer gehiago, sarriago eta kanpaina gehiago. Tailerretan lantzen diren gaiak zabaltu dira eta talde-saioak egin dira honako gai hauek: aurkezpen-gutuna, enplegu inklusiboa, goraka ari diren lanbideak, lehen lanpostua, nola ekin berriro prestakuntzari, eta lan-elkarrizketak. Saio dinamikoak eta parte hartzekoak izaten dira, eta beren helburua zenbait alderdi hobetzea izaten da: enplegarritasuna, lan-merkatuaren ezagutza eta motibazioa. Hain zuzen ere, urte amaieran Bulego Birtualak orientazioko hamar tailer inguru eduki ditu bere zerbitzu-zorroan.

Azkenik, 2023. urtean aurrera egin dute “Enplegura bidean” autoorientazioko zerbitzua eratzeke lanek. Zerbitzu berri horren bidez, orientazioko baliabideak eta materialak ipiniko dira herritarren esku, eta maleta gisa antolatutako moduluak erabili ahal izango dituzte beren burua prestatzeko. Maletetan trebetasunak hobetzeko edo lan-merkatua hobeto ezagutzeko tresnak egongo dira. Uste da zerbitzua 2025erako egongo dela erabilgarri.

1.7. Lanerako Orientazio, Ekintzailtza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroa

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barnean (SEEP) lanerako orientazio, ekintzailtza, laguntza eta berrikuntza zentroyen sarea (COE sarea) sortzeko lanak hasi ziren (20 zentro). Zentroak Espainiako autonomia erkidegoetan barreiatuta daude eta beren helburua enplegurako politika aktiboak hobetzeko behar diren ezagutzak zabaltzea da.

2022ko maiatzean, Lanbideren Zuzendaritza Nagusia buru zela, EAEko lanerako Orientazio, Ekintzailtza, Laguntza eta Berrikuntza Zentroa abian jarri zen. Zentroaren egoitza nagusia Gasteizko Elvira Zulueta kaleko eraikin batean dago, eta azpiegoitza, Sestaako lanerako prestakuntza-zentroan (Bizkaia).

COE sareak aukera ederrak ematen dizkio Lanbideri: hausnarketarako eta berrikuntzarako espazio propioak dauzka eta egungo zerbitzuak kudeatzeko egitura arruntak gainditu ditzake. Halaber, sare horri esker Lanbidek lankidetzan jardun dezake Estatuko gainerako enplegu zerbitzu publiko guztiekin ikasten, esperientziak partekatzen, denen artean sortzen eta batera hausnartzen, partekatutako berrikuntza-kultura baten esparruan.

Hauexek izan dira 2023ko ekitaldiko lorpen nagusiak:

- COE sarearen EAEko egoitza ireki da Gasteizen eta “Birgaitzeagatik irekita” hedapen-proiektua garatu da.
- Lanbideen eta Gaitasunen Laguntzailea diseinatu eta sortu da. Lan-orientazioko langileei laguntzeko tresna berria da, adimen artifizialean oinarritua. Informazio azkarra eta interpretatzeko erraza eskaintzen du egungo lan-inguruari buruz.

- Ekintzailtza sustatzeko eta horri buruzko aholkuak emateko eredua diseinatu da. Horren helburu nagusia da ekintzailtza bultzatzea proiektu, enpresa eta lanpostu lehiakorrek eta jasangarriak sortzeko. Lanbideren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzarekin batera egin da.
- Enpresetan lan-prospekzioa egiteko eredua eta arlo publikoaren eta enpresa pribatuaren arteko lankidetzarako esparrua diseinatu eta zehaztu dira. Lanbideren Enpresentzako Zerbitzuarekin batera egin da.
- Lan-arloko bitartekaritza berritzeko aholkularitza eskaini da eta bitartekaritza-eredu berria, egokitua eta baliokoa, proposatu da. Lanbideren Laneratze



Edificio de la sede central del COE

Zerbitzuarekin batera egin da.

- Orientaziorako eredu bat aztertu eta proposatu da Lanbideren bulegoen eta zentro laguntzaileen sarerako. Lanbideren Laneratze Zerbitzuarekin batera egin da.
- Hiru prestakuntza-pilula eman zaizkie Lanbideko orientatzaileei, honako gai hauei buruz: joera berriak orientazioaren arloan; lan-merkatua gaur egun; lana bilatzeko teknika berriak.
- Sare sozialetako lizentziak eskuratu dira eta horiek erabiltzeko plana egin da, lan-arloko bitartekaritza hobetzeko eta bultzatzeko Lanbideren enplegu-bulegoetan.
- Barruko komunikazio-sistema diseinatu da: orientatzaileentzako newsletter-a.
- Lanbide eta tokiko beste administrazio publiko batzuk orientazioaren, bitartekaritzaren eta prestakuntzaren arloetan entitate pribatu laguntzaileekin lankidetzan aritzeko eredu baten proposamena zehaztu da.
- Euskal Enplegu Sarearen egungo egoeraren mapa egin da, eta Lanbideren eta Euskal Enplegu Sareko gainerako entitateen arteko lankidetzak gauzatzen duten jarduketa-protokoloak, lankidetzak-hitzaurreak eta esparru-akordioak egin dira.
- COE sareko Andaluziako, Balearretako eta Madrilgo zentroekin jardunbide onak partekatzeko jardunaldiak antolatu eta egin dira.
- "Lan modu berriak balio berriei begira" proiektua burutu da. Bertan aztertu da zer iritzi duten gazteek enpleguaz eta zein den beren jarrera, enpresen

beharrizanekin alderatuta.

- Etorkin helduak gaztelaniaz alfabetatzeko oinarritzako prestakuntzako jarduerak antolatu eta egin dira, eta gida didaktikoa egin da prestakuntza ematen duten pertsonentzat. Lanbideren Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritzarekin batera egin da
- Eskolanbide. Etorkinei Gipuzkoako ostalaritzan prestakuntza emanez laneratzen eta gizarteratzen laguntzeko proiektu pilotua. Lanbideren Enplegurako Lanbide Heziketako Zuzendaritzarekin batera egin da.
- COEren 2024ko ekitaldiko lan-plana egin da.

1.8. Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak


Guztira, Lanbideren zentro organikoetan 1.269 pertsona aritu dira lanean.

Lanbideko langileak, zentro organikoaren arabera. 2023ko abendua

Zentro organikoa	Pertsona kopurua
Zerbitzu Nagusia	365
Lurralde-bulegoak	93
Tokiko enplegu-bulegoak	811
GUZTIRA	1.269

Lanbidek 2023ko ekitaldian exekutatutako gastuen aurrekontua 1.161.321.107 eurokoa izan da; gastuak honako programa hauetan egin ditu: (i) Gizarte-inklusihoa; (ii) Enplegua; (iii) Prestakuntza; (iv) Lana eta enplegua: egitura eta laguntza; (v) Suspertze eta erresilientzia mekanismoa; (vi) COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurriak. Guztira, aurreikusitako aurrekontuaren % 94 exekutatu da.

Lanbidek exekutatutako aurrekontua, programaren arabera. 2023 urtea; %



Guztira: 1.161.321.107 €



2. Lanbide

sarean

Ohi bezala, sare sozialak eta web orria izan dira Lanbideren komunikazio-tresna nagusiak, geroz eta gehiago erabiltzen baitira publizitate-plataforma gisa eta herritarrei arreta emateko.

2.1. Sare sozialak

Ohi bezala, 2023ko ekitaldian Lanbidek Youtuben, LinkedIn-en, Instagramen eta Facebooken dauzkan kontuak sendotu ditu. Lau sare sozial horietan aurreko urtean baino 5.413 jarraitzaile edo harpidedun gehiago egon dira 2023an. Gorakadarik handiena Youtuben gertatu da: 2.628 harpidedun gehiago (+% 68,1), batez ere Merkalan eta FESLAN azokak zuzenean eman direlako; gainera, bideo tutorialak eta bestelako bideo interesgarriak ere argitaratu dira, eta horiek web orrian eta Lanbideren gainerako sare sozialetan ere sartu dira. LinkedInen 1.173 jarraitzaile gehiago egon dira (+% 5,8), Instagramen 926 jarraitzaile gehiago (+% 57,6) eta Facebooken 686 jarraitzaile gehiago (+% 4,9).

Aldiz, X sare sozialean (lehen Twitter) beherakadaxoa gertatu da erabiltzaileen kopuruan (59 gutxiago; -% 0,45); seguruenik, arrazoia sare sozial horretan orokorrean gertatu den erabiltzaile-beherakada izan da.

2024ko martxotik Lanbidek kontua dauka Telegramen; horri esker zuzenago hitz egin daiteke erabiltzaileekin aplikazio horren hedapen-kanalen bitartez.

Horrenbestez, ekitaldiaren amaieran sare sozial bakoitzean jarraitzaile edo harpidedun hauek egon dira: LinkedInen, 21.342; Facebooken, 14.727; Xn, 13.160; Youtuben, 6.488; Instagramen, 2.533, eta Telegramen, 2.054.

2.2. Web orria

Lanbideren web orriak aurrera egin du 2023. urtean zehar. Jarraian, Nire Lanbidenet zerbitzuan, lan-eskaintzen alten zerbitzuan eta beste atal batzuetan ezarri diren hobekuntzak eta funtzionalitate berriak azalduko dira.

Nire Lanbidenet Lanbideren web orriko atal pribatua da. Bertan erabiltzaileek informazio pertsonalizatu jakingarria eskuratu dezakete, eta zenbait gestio egin ditzakete. 2023ko ekitaldian honako berrikuntza hauek egin dira:

- Menuko “Nire eskaera / Berritzea” aukeran, “Argitaratu CV” botoia txertatu da. Horren bitartez, erabiltzaileek beren curriculuma argitaratu dezakete datu pertsonalik azaldu gabe eta horrela enpresek curriculumitsuak aztertu ahal izango dituzte.
- Menuko “Nire orientazioa” aukeraren barruan, “Nire lanbidea” aukera txertatu da. Bertan erabiltzaileek lan-eskaeran hautatutako lanbideen inguruko informazioa kontsultatu ahal izango dute.
- Menuko “Nire curriculuma” aukerako “Hizkuntzak” atalean “Egiaztatu EEMBko euskarazko maila” botoia sartu da. Horren bidez euskararen hizkuntza-eskakizunak modu automatikoan egiaztatu daitezke elkarreragingarritasunez.
- Orain Batasunekoak ez diren herritarrek identifikazio elektronikoaren bidez sar dezakete lehen lan-eskaera, enplegu-bulego batera joan gabe, baldin eta bizileku-baimena eta lan-baimena elkarreragingarritasunez egiaztatu ahal badiutuzte.
- Orain ez bizileku-baimenik ez lan-baimenik ez daukaten erabiltzaileek lan-eskaera berrizatu dezakete identifikazio elektronikoaren bidez, administrazio-baimena elkarreragingarritasunez egiaztatuta, enplegu-bulego batera joan gabe.

- Erabiltzailea eta gakoa idatzita sartzeko segurtasuna indartu da: irizpide zorrotzagoak ezarri dira eta gako konplexuagoak eskatzen dira.

Eskaintzen alten zerbitzuak aukera ematen die enpresei beren lan-eskaintzak bulego batera joan gabe argitaratzeko eta kudeatzeko. 2023ko ekitaldian zenbait berrikuntza sartu dira enpresen beharrezanez hobeto erantzuten dien zerbitzu ona eskaintzeko:

- Enpresei lanpostu jakin bat betetzeko moduko lan-eskatzzaileen berri ematen dien zerbitzu berria ezarri da: enpresek lan-eskaera aurkeztu duten pertsonetatik berariazko baimena eman dutenen lanbide-profiletan (datu pertsonalik gabeko CVa) sartu ahal izango dira. Horretarako, aldez aurreko lan-eskaintza bat sortu beharko dute behar dituzten langileek eduki bete behar dituzten ezaugarriekin. Hortik aurrera, interesatzen zaizkien profilak aukeratu ondoren, lan-eskaintzaren eskaera bat sortu ahal izango dute. Aukeratutako CVak zuzenean bertara txertatuko dira, eskaintzarako erabilgarri daudela egiaztatuta ondoren.

Egin diren beste gauza batzuk:


- “Azterlanak eta estatistikak” atalean, “Lanbideak” apartatuaren diseinua aldatu da: orain lanbideei buruzko informazioa argiago eta hobeto antolatuta dago, sektorearen eta ikasketen arabera xehatuta.
- “Ibilbide mistoak” web orria sortu da; bertan Lanbideren Inklusio Zerbitzuak kudeatzen duen ibilbide mistoen proiektuari buruzko informazioa ematen da.
- “Kontratatzeko” ataleko “On line aholkularitza” aukeran, online formularioa ezarri da, enpresek kontsultak egiteko, identifikazio elektronikoaren bidez sartuta. Atal berean, “Laguntza” apartatuan, enpresek Bulego Birtualerako

hitzordua eskatzeko aukera ezarri da.

- Web orri osoa irudi korporatibo berrira egokitu da.
- Plataforma berria prestatu da Lanbideren 2023ko Merkalan Enplegu Azoka egiteko. Plataforma hori Lanbideren lan-eskaintza guztiak kudeatzeko erabiltzen den bitartekaritzako aplikazioarekin integratuta dago.

Horrenbestez, 2023. urtean pertsona askok erabili dute web orria kudeaketak egiteko: 55.328 aldaketa egin dira curriculumetan (aurreko urtean baino % 23,0 gehiago) eta 40.815 lan-eskatzzailek erabili dute “Argitaratu CVa” aukera.

Guztira, 19.500.890 saio egon dira, 2022an baino % 5,3 gehiago.





3.

Lanbide

jarduketak

Atal honetan azaltzen da zer egin duen lanbidek enplegurako politika aktiboetako zerbitzuak, programak eta neurriak kudeatzeko, eta diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) kudeatzeko.

Hain zuzen ere, lanbide 2023. urtean egin dituen jarduketan bidez lortutako guztia azaltzen da, zerbitzuka xehatuta.

3.1. Laneratzea Aktibatzea

Enplegua Sustatzeko Zerbitzua

Desgaitasunen bat duten pertsonak

Dirulaguntzen bidez, % 33tik gorako desgaitasuna duten 132 pertsonari mugagabeko kontratua egin diete enpresa arruntetan.

Nork bere lana sortzea eta enpresak sortzea

564 pertsonari eman zaie baimena dirulaguntza lortzeko enpresa-idea bat lantzeko (384) edo ideia abian ipintzeko (180). Azkenean, 305 eskaera aurkeztu eta exekutatu dira.

2023an lanean hasi diren 684 langile autonomok laguntza ekonomikoa jaso dute proiektua finkatzeko eta 178k proiektua ezartzeko.

Lan-kooperatiba elkartu edo lan-sozietate bateko langile bazkide legez edo autonomo gisa jarduera bat hasteko ordainketa bakarreko modalitatean langabezia-prestazioa jaso duten 760 pertsonari Gizarte Segurantzarako kotizaziorako dirulaguntza eman zaie.

Lana eta familia bateragarri egitea

541 espedientetan aldeko ebazpena eman zen, guztira 227 enpresatan; espediente horietan enpresari dirulaguntza eman zitzaion lana eta familia bateratzeko neurriei heltzen dieten langileen ordezkioak kontratatuzko.

Lehen Aukera programa

950 kontratu egiteko dirulaguntzak eman dira: praktikaldiko 456 kontratu eta mugagabeko 494 kontratu. Programa honen helburua da mugagabeko edo praktikaldiko kontratua egitea langabezian dauden eta beren titulazioari lotutako enpleguetan esperientziarik ez duten edo esperientzia oso urria duten 30 urtetik beherako gazteei.

Errelebo-kontratua programa

120 enpresak jaso dute dirulaguntza 139 errelebo-kontratu egiteko: 78 kontratu, 30 urtetik beherakoei, eta 61, 45 urtetik gorakoei.

Tokiko ekintzetarako laguntzak

54 espedientetan laguntza eman da: udalak, mankomunitateak, udal elkarteak eta kuadrillak. 2.016 lanpostuk jaso dute dirulaguntza.

Gazteen kontratazioa EAEko 2021-2027 aldiko EGF+ programan

31 udalek laguntza jaso dute, Gazte Bermearen Sistemaren erregistratutako lanik gabeko 276 pertsona gazte kontratatuzko.

Laneratzea

Enplegu-zentroen sarea

42 enplegu-zentrotan, 10.386 pertsonari eman zaie arreta, eta 238k talde-

ekintzetan hartu dute parte.

Enplegurako orientazioa.

Lanbidek bere baliabideekin arreta eman die 131.883 pertsonari, eta beste 46.224 pertsonari, entitate laguntzaileen bidez.

Bitartekaritza

Lan-eskaera berritu dutenen % 98,84k aurrez aurrekoa ez beste kanalen bat erabili dute.

Lan-eskaera berreskuratu dutenen % 69,87k aurrez aurrekoa ez beste kanalen bat erabili dute.

Lan-eskaintzak jasotzeko hautagaitza aurkeztu dutenen % 98,99k aurrez aurrekoa ez beste kanalen bat erabili dute.

7.833 lanpostu entitate laguntzaileek kudeatuko dituzte.

17.509 lanpostu lanbideren bulegoetatik kudeatuko dira.

Lanbiden arreta (orientazioa, bide-laguntza, prestakuntza edo eskaintzaren araberako hautagaitzak) jaso duten pertsonen % 26,83k kontratua lortu dute ondoko 6 hiletan.

18 jarduera Europan eta Estatuan (enplegu-azokak, job days...).

EURES sareak antolatutako nazioarteko 15 kontratazio-ekitaldi.

Unibertsitateentzako dirulaguntza izendunak

UPV/EHU: 762 pertsonak jaso dute arreta eta 40 kontratu egin dira.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA: 253 pertsonak jaso dute arreta eta 25 kontratu egin dira.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEA: 484 pertsonak jaso dute arreta eta 45 kontratu egin dira.

Lankidetza publiko-pribatuko proiektuak: dirulaguntza izenduna Novia Salcedo fundazioari

Onuradunak izan daitezkeen 1.665 entitate, erakunde, sail eta unitate identifikatu dira.

496 lanpostu identifikatu dira kontratazioen onuradunak izan daitezkeen erakunde eta entitateetan.

Erregistratutako eskaintzetan kontratazioen onuradunak izan daitezkeen 277 lanpostu identifikatu dira.

Enpresentzako Zerbitzuak

Lanbide Hobetzen planaren esparruan enpresekin esku hartzeko eredua zehaztu da.

Enpresen enplegu eta gaitasun beharrianak aztertzeko eredua eta plana diseinatu dira. Gainera, hasierako hedapena egin da.

Euskadin enplegua sustatzen duten eragileen arteko topaketarako eta koordinaziorako ingurunean prestatu da Konektalan plataforma digitalaren bidez.

EAEko enpresek egindako 7.792 kontsultari jaramon egin zaie lineako aholkularitza-zerbitzuaren bidez.

Aukeraberri programa (arazoak dauden sektoreetako enpresetatik kaleratutako pertsonen birkualifikaziorako eta birkolokaziorako)

245 pertsonak birkualifikazioa edo beste lanpostu bat lortu dute, 463 enpresa konektatuta daude eta 555 eskaintza kudeatu dira. Lankidetza estrategiko horretarako hiru alderdiko hitzarmenak sinatu dituzte Bizkaiko Foru Aldundiak, Lanbidek eta 5 enpresa-elkartek (cluster).

Desgaitasuna duten pertsonak laneratzeko jarduketa laguntzadunak

8 entitatek adjudikazioa jaso dute laneratzeko jarduketa laguntzadunak egiteko.

87 pertsonak laguntza jaso dute lan-merkatuan sartzeko.

194 pertsonak laguntza jaso dute lanpostua mantentzeko.

Proiektu pilotua

Lan-Mentoring proiektu pilotua, enpresetan adina eta ezagutza kudeatzeko, enplegua bultzatu ahal izateko belaunaldien arteko erreleboetan.

60 enpresa aritu dira ETEei belaunaldien arteko erreleboan eta adinaren kudeaketan laguntzeko proiektu pilotuan; helburu nagusia izan da enpresek ezinbesteko gaitasunak mantentzea eta hobetzea aholkularitzaren bidez

Luzaroan lanik gabe dauden 30 urtetik goragoko pertsonak

Lanik gabe luzaroan egon diren 26 pertsona kontratatatu dira.

Desgaitasuna duten pertsonen % 2ko kuota betetzea 50 langile edo gehiago dauden enpresetan

788 enpresak aurkeztu dute erreserba-kuotari buruzko komunikazioa. Erreserba-

kuota betetzen lagundu da eta, betetzen ez den kasuetan, salbuespen-neurriak betetzeko modua kudeatu da.

3.2. Enplegurako Lanbide Heziketa

Enplegurako prestakuntza

Lehentasunez langabeentzat bideratutako eskaintzako prestakuntza

12.779 pertsonak jaso dute profesionaltasun-ziurtagirien inguruko prestakuntza.

10.003 pertsona aritu dira egiaztatu ezin diren prestakuntza-ekintzetan.

283 pertsona aritu dira kontratazio-konpromisodun prestakuntza-ekintzetan.

Kualifikazio baxuko 343 gaztek jaso dute prestakuntza.

55 pertsona aritu dira jarduera-sektore maskulinizatueta lan egiten duten emakumeentzako prestakuntza eta enplegu-ekintzetan. 27 pertsona kontratatze-ko konpromisoak lortu dira.

4.779 pertsona aritu dira enplegu-nitxo berrien inguruko ekintzetan.

5.880 pertsonak hartu dute parte laneratzeko eta gizarteratzeko proiektu berezietako prestakuntza-ekintzetan. 1.873 pertsonak jaso dute arreta.

Lehentasunez landunentzat bideratutako eskaintzako prestakuntza

29.917 pertsonak jaso dute prestakuntza ekintza sektorialetan.

9.141 pertsonak jaso dute prestakuntza zeharkako ekintzetan.

6.193 pertsonak jaso dute prestakuntza lanbide-kualifikazioko eta -aitorpeneko ekintzetan.

Enpresetako prestakuntza-ekintza estrategikoak

11.526 pertsonak hartu dute parte 227 enpresatan

Txandakatzearen bidezko prestakuntza (Hezibi) eta lanekoak ez diren praktikak

864 ikaslek parte hartu dute txandakatzearen bidezko prestakuntzan diruz lagundutako HEZIBI proiektuetan.

89 gazte tituludunek lanekoak ez diren praktikak egin dituzte beka baten bitartez.

Ekimen pribatuko ekintzak

2.178 pertsonak hartu dute parte akreditatu daitezkeen ekimen pribatuko ekintzetan.

Lan-esperientzia eta ikaskuntza ez-formalak egiaztatzeako ekintzak gaitasuna aitortzeko tresnaren bidez, Hezkuntza Sailarekin koordinatuta

1.616 pertsonak jaso dute akreditazioa gaitasuna aitortzeko sistemaren prozeduran.

Enplegurako Lanbide Heziketaren Sistemaren kalitate-tresnak

113 zentro berri erregistratu dira; horietatik 19 akreditatu dira eta 94 inskribatu dira.

130 espezialitate berriri eman zaie alta katalogoan, programa egonkorrekin.

28.825 pertsona erregistratu dira prestakuntza-kontuan.

11.927 profesionaltasun-ziurtagiri egin dira..

Dirulaguntza izenduna VASS fundazioari, "Developers From Euskadi" programa gauzatzeko

480 parte-hartzaile.

3.3. Prestazioak eta gizarteratzea

Prestazioen Zerbitzua

Jasotzen diren eskaerak arautegian ezarritako epealdietan eta bertako beharkizunak beteta izapidetzea

Urtean 52.554 bizikidetza-unitatek jasotzen dute DSBE, batez beste.

Urtean 21.961 bizikidetza-unitatek jasotzen dute BGDS, batez beste.

183.092 ebazpen eman dira DSBE / EPO prozeduretan.

20.058 ebazpen eman dira DSBE eskaera berriei buruz.

163.034 ebazpen eman dira DSBE edota EPO espedienteak berrikusteko prozeduretan.

36.585 ebazpen eman dira BGDS prozeduretan.

18.036 ebazpen eman dira BGDS eskaera berriei buruz.

18.549 ebazpen eman dira BGDS espedienteak berrikusteko prozeduretan.

laguntza eskatzeko, berriz jasotzeko edo zenbatekoa handitzeko prozeduretan eman diren aldeko ebazpenen % 84 legeko epealdian (bi hilabete eskaera aurkeztu denetik) eman dira eta nominetan aplikatuko dira.

Beharkizunak betetzen direnez kontrolatzea eta azkar detektatzea barruko eta kanpoko kontroletan gertatzen diren aldaketak

19 elkarrengarritasun-zerbitzu beharkizunak izapidetzeko edo kontrolatzeko.

115.401 ebazpen eman dira ofizioz hasitako berrikuspen-prozeduretan.

Prestazioren bat jasotzen duten pertsonen gizarteratzen eta laneratzen laguntzea

229.665 laneratze-zerbitzu egin zaizkie prestazioen titular edo onuradunei.

Orientazio-zerbitzuetako parte-hartzaileen % 23,8 eta prestakuntza-zerbitzuetako % 17,4 prestazioen hartzaileak izan dira.

Prozedurak egokitzea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Lege berria betetzeko

Lege hori 2023ko martxoaren 23an ipini zen indarrean. Bertan ezartzen den arau-esparru berria antolatzeko, prozedurak, irizpideak eta informazio-sistemak moldatu behar izan dira, onuradunei arreta eraginkorragoa eta hobea eskaintzeko.

Inklusio Zerbitzua

Gizarte-bazterketa eta lan-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen inklusio-ibilbideetan laguntzeko proiektu esperimentalak bultzatzea

15 proiektu pilotu garatu dira 14 toki-erakunderekin, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren Policy Lab-ekin eta NextGenerationEU funtsekin lankidetzan. Proiektuetan honako lan hauek egin dira: langabezia luzaeraren egonik DSB edota BGDS jasotzen dituzten pertsonak gizarteratzeko eta laneratze ibilbide pertsonalizatuak prestatu dira eta gero haien eragina ebalatu da ausazko saiakuntza kontrolatuen bitartez.

184 pertsonak prestazioak jaso dituzte gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko zerbitzuetan.

Ibilbide mistoen proiektuak: sareko arreta intersektorial koordinaturako proiektuak, ibilbide pertsonalizatuak garatzeko.

Ibilbide mistoen 14 proiektu ipini dira abian: Osasun mentala, Emaukera, Empleado.nos, Mesa Bilbao La Vieja, Gazte Lan, Enkaremakbai, Elkar Hobetzen, Adicciones, Suziria, Jóvenes Inmigrantes, Batzen, ibil2deak, Oarso-sarea, Debabarrena. Proiektu horietan ongizate estatuko profesionalak edo sistemak koordinatuta, lankidetzan edo sarean lan egitea sustatzen da, helburua honako hau dela: beharizan asko dauzkaten pertsonen ematen zaien arretaren eraginkortasuna hobetzea.

Elkarrengandik ikasteko topaketa bat egin da Lanbideren Zerbitzu Zentralen eraikinean. Bertan, programaren barruan egiten ari diren proiektu guztien berri eman da.

Proiektu esperimentalen jardunaldia

Gizarteratzeko eta laneratze proiektu esperimentalen jardunaldia egin da Bilboko Yimby aretoan, urriaren 11n. 150 pertsona baino gehiago bildu ziren.

Desgaitasunen bat duten pertsonen laneratzea bultzatzea

Euskal Autonomia Erkidegoan 91 enplegu-zentro berezi daude lanean.

Batez beste desgaitasunen bat duten 10.725 langile aritu dira enplegu-zentro berezietan Lanbidek diruz lagundutako kontratuei esker.

Jarduera profesionala babesteko 39 unitatek Lanbideren dirulaguntza jaso dute.

Desgaitasunen bat duten 5.073 pertsonak erabili dituzte Lanbidek diruz laguntzen dituen babes-unitateak.

Laneratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzea, lan-mundutik eta gizartetik baztertuta geratzearen arriskua eta kronifikazioa saihestuz

Euskal Autonomia Erkidegoan 44 laneratze-enpresa ari dira.

Batez beste bazterketa-arriskuan dauden 901 pertsona aritu dira lanean Lanbidek diruz lagundutako laneratze-enpresetan.

175 pertsona kontratatu dituzte Lanbidek diruz lagundutako laneratze-enpresetan laguntzako langile tekniko gisa.

Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzarako proiektuak

Dirulaguntza izenduna EDE fundazioari: gizarteratzeko eta laneratze 70 ibilbide egin dira emakume zaurgarriekin.

Dirulaguntza izenduna SENDOTU proiekturako: gizarteratzeko eta laneratze 253 ibilbide egin dira pertsona zaurgarriekin.

“Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo zaurgarriak” programa

445 pertsonak jaso dute 45 urtetik gorako langabeentzako eta kalteberatasun-

egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako arreta.

3.4. Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa

Next Generation EU funtsak Europar Batasunak sortu ditu COVID-19aren pandemiak ekonomian eta gizartean egindako kalteak konpontzeko eta horretatik suspertzeko. Funts horien ardatza Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) da. Horren iraunaldia 2021-2025 da.

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa Next Generation EU Europaren Suspertze Planaren zutabe nagusia da. Planak lau ardatz dauzka: trantsizio digitala, trantsizio ekologikoa, gizarte-koheretza eta genero-berdintasuna. Ardatz horiek 10 palanka-politika eta 30 osagai bideratzen dituzte.

Lanbidek zenbait programa kudeatzen ditu funts horien kargura, honako palanka-politika hauetan:

- VII. palanka-politika: Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza, eta gaitasunen garapena.
- VIII. palanka-politika: Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak.

Palanka-politikek zenbait osagai dauzkate, eta Lanbide honako hauetan aritzen da:

- 19. osagaia: Gaitasun Digitalen Plan Nazionala (digital skills).
- 20. osagaia: Lanbide Heziketa bultzatzeko plan estrategikoa.
- 23. osagaia: Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak.

Gainera, osagai bakoitzean Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren ardatzekin bat datozen inbertsio batzuk egiten dira. Horren ildotik, jarraian Lanbideek parte hartzen duen inbertsioak azalduko dira labur-labur, eta 2023. urtean inbertsio bakoitzaren barruan garatu eta kudeatu diren programetan izan diren lorpenen berri emango da.

C19.I3 inbertsioa: Enplegurako gaitasun digitalak

4.668 pertsonak hartu dute parte langabeentzako gaitasun digitalak, landa-garapena eta ekintzailatza bultzatzeko eta genero-arrakala murrizteko programan.

C20.I1 inbertsioa: Biztanleria aktiboaren reskilling eta upskilling ekintzak, kualifikazio profesionalekin lotuta

6.123 pertsonak jaso dute prestakuntza "Biztanleria aktiboaren reskilling eta upskilling ekintzak, sektore estrategikoetako kualifikazio profesionalekin lotuta" programaren barruan.

C23.I1 Inbertsioa: Gazteen Enplegua

Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programaren barruan gazteak kontratatzeke 408 eskaera hartu dira aintzat.

Ikertzaile gazteak kontratatzeke INVESTIGO programaren barruan gazteak kontratatzeke 351 eskaera hartu dira aintzat.

C23.I2 inbertsioa: Enplegua, emakumea eta genero-zeharkakotasuna enplegua aktibatzen laguntzeko politika publikoetan

55 emakumek jaso dute laguntza landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programaren barruan.

10 emakumek hartu dute parte genero-indarkeriaren, salerosketaren edo sexu-

esplotazioaren biktima diren emakumeak prestatzeko programan (kontratazio konpromisoarekin).

2021 – 2023 aldian plan bat egin da urtean, enplegurako politika aktiboetan generoaren zeharkakotasuna sustatzeko ekintzen programaren barruan.

C23.I3 inbertsioa: Eraldaketa digital, berde eta produktiborako gaitasun berriak eskuratzea

34 prestakuntza-premia prestakuntza-premiak detektatzeko programaren barruan.

C23.I4 inbertsioa: Berrroekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak

Zaugarritasun-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden 2.104 pertsona kontratatu dituzte kolektibo kalteberentzako lurralde-proiektuen programaren barruan toki-erakundeek diseinatu dituzten proiektuetan.

3.078 eskaera onartu dira ekintzailatza eta mikroenpresen programaren barruan.

C23.I5 inbertsioa: Gobernantza eta enplegua aktibatzen laguntzeko politikak bultzatzea

Inauguración en diciembre de 2023 del Centro de Orientación, Emprendimiento, Acompañamiento e Innovación ubicado en la calle Elvira Zulueta 4 en Vitoria – Gasteiz.

1.743 personas participantes en acciones formativas dentro del Programa para la formación permanente del Sistema Nacional de Empleo.

C23.I7 inbertsioa: Hazkunde inklusiboa sustatzea, gizarteratze-politikak bizitzeko gutxieneke diru-sarrerarekin lotuz

15 proiektu pilotu egin dira gizarte-bazterketan geratzeko arriskuan dauden pertsonen BGDS hobeto jasotzeko programaren barruan.



4.

Lanbide

azokak eta
ekitaldiak

2023ko ekitaldian Lanbidek lan gehiago egin du enpleguaren arloko azokak eta ekitaldiak antolatzen eta halakoetan parte hartzen. Honako hauek izan dira gogoangarrienak, Lanbidek buruzagi-lanak egin baititu antolaketan: “Merkalan” Enplegu eta Prestakuntza Azoka, “Feslan” Gizarte Ekonomiaren Enplegu Azoka eta Biltzarra, eta Gizarteratzeko eta Laneratzeko Proiektu Esperimentalen Jardunaldia. Nolanahi ere, urtean zehar Lanbidek beste topaketa askotan ere jardun du; hona batzuk:

- Deustuko Unibertsitatearen Enpleguaren eta Ekintzailetzaren Foroa (otsailaren 22a eta 23a)
- UPV/EHUren Bizkaiko Campuseko Enpleguaren Foroa (martxoaren 16a)
- UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko Enpleguaren Foroa (apirilaren 27a)
- Gasteizko EmpleoGune - Enpleguaren Foroa (maiatzaren 3a)
- WORKinn Talent Hub Foroaren Enplegu Azoka (ekainaren 7a eta 8a)
- Industria eta Zerbitzuen PICE 2023 Enplegu Azoka (urriaren 31tik azaroaren 2ra)
- Bidasoa Bizirik Enplegu Azoka (maiatzaren 30a eta azaroaren 15a)
- Forum d’Emploi Hendaye; antolatzaileak: Hendaiako Udala, Agence Pôle Emploi (Donibane Lohizune) eta Lan-Eko laguntza-zentroa (apirilaren 20a)
- Portugaleteko Ikasleen “Crash!” Azoka (abenduaren 19a eta 20a)
- Arabako LHko Enplegarritasunari buruzko Jardunaldiak (azaroaren 22a)

- “Unire” soldaduraren eta beste lotura-teknologia batzuei buruzko azoka (martxoaren 8a eta 9a)
- Musikaren industriaren “BIME Bilbao” nazioarteko biltzarra (urriaren 25etik 28ra)
- Euskal Modaren Lehen Aretoa, Bilbon (azaroaren 17a eta 18a)
- “Workinlan Summit 2023” Euskadiko enpleguaren etorkizunari buruzko topaketa, Bilboko Euskalduna jauregian (otsailaren 16a eta 17a)
- Zerbitzuen arloko LH dualeko proiektuen kudeaketaren bikaintasunaren sarien lehen edizioa, San Luis zentroak antolatua Bilbon (martxoaren 15a)
- Gazte Up Enpleguaren eta Gazteen Jardunaldia (martxoaren 28an Bilbon eta abenduaren 1ean Donostian)

4.1. Merkalari azoka

Merkalan, Lanbideren Enplegu eta Prestakuntza Azokak aukera ematen die enpresei hautapen-prozesuak bateratzeko, langileen kontratazioa errazteko eta beste enpresa batzuekin lankidetzan aritzeko eta sinergiak eta sareak sortzeko. Herritarrei laguntza handia ematen die enplegua aurkitzeko edota hobetzeko.

2023an, maiatzaren 31tik ekainaren 2ra, azokaren laugarren edizioa egin da formatu birtualean, web orri honetan dagoen plataformaren bidez: www.merkalan.eus. Bertan, enplegu-eskaintzak eta prestakuntza-aukerak bilatu ahal izan dira, eta parte hartu duten enpresekin hitz egin ahal izan da.

Azokaren irekiera-ekitaldi ofiziala maiatzaren 31n egin zen Bilboko Guggenheim museoko auditorioan, leloa “Lan modu berriak balio berriei begira” zela. Elkarrizketa-mahai bat eta zenbait motibazio-ponentzia antolatu ziren, lanaren antolamenduan eta lan-arloko arauketan gertatu diren aldaketak eta enpresen parte hartzeko eredua aztertzeko. Halaber, telelanaz eta adinaren kudeaketaz ere aritu ziren.

Espazio birtuala maiatzaren 2an ireki zen azokan izan ziren enpresentzat eta entitateentzat, astia eduki zezaten beren stand birtualak atontzeko eta beren enplegu-eskaintzak erregistratzeko. Horrela, beren burua plazaratu zuten eta elkarrizketak egin ahal izan zituzten.

Azokaren aurreko astean, interesdunek zenbait gauza egin ahal izan zituzten plataforma birtualaren bidez: erregistratu, enpresen eta entitateen stand birtualak bisitatu, haien enplegu-eskaintzak aztertu eta elkarrizketak egiteko hitzorduak ezarri.

Azoka amaitu ondoren, ekainaren 3tik 22ra, plataforma birtuala erabilgarri egon zen erregistratutako erabiltzaileentzat, hautapen-prozesuen jarraipena egiteko eta enpresei mezuak bidaltzeko. Aldi horretan, nahi zuten guztiek aukera eduki zuten enplegu-eskaintzetarako inskribatzeko.

Guztira, 170 enpresa eta prestakuntzako 14 entitate aritu dira, 694 enplegu-eskaintza egin dira, 2.365 lanpostu eskaini dira eta prestakuntzako 202 ekintza egin dira.



Bilboko Guggenheim museoko auditorioko elkarrizketa-mahaian aritu ziren pertsonak

4.2. Feslan azoka

2023an Donostia gizarte ekonomiaren Espainiako hiriburua izan da. Hori dela eta, Lanbidek eta Lan eta Enplegu Sailak FESLAN antolatu dute, Gizarte Ekonomiaren Enplegu Azoka eta Biltzarra, azaroaren 16an eta 17an, Donostiako Kursaal.

Azokaren helburuak honako hauek izan dira: (i) gizarte ekonomiak kalitateko enplegua sortu dezakeela jakinaraztea; (ii) lortzea etorkizunerako enpresa-segmentu gakoa izan dadila, bai eta, aldaketa-garai honetan, ekonomia eta gizarte suspertzeko palanka ere. Hain zuzen ere, FESLANen EAEn gizarte ekonomiaren arloan ari diren enpresa garrantzitsuak ezagutu ahal izan dira, gizarte ekonomiaren arlo berezian lan egiteko aukerak aurkitu ahal izan dira eta enpresek behar dituzten lanbide-profilen berri eman dute.

Azokan 49 enpresa izan dira guztira, eta mila bisitari bertaratu dira: profesionalak, ikasleak eta bestelako herritarrak.

Biltzarrak bi egun iraun zuen. Hasieran motibazio-pontentzia bat egon zen eta ondoren zenbait elkarizketa-mahai; mahaietan enplegu-zentro bereziak, lan-sozietateak eta partaidetzapeko sozietateak, gizarteratzeko enpresak, gizarte-ekonomiako enpresak eta ekonomia solidarioko



Lanbideren standa FESLAN azokan

enpresak, elkarteak, fundazioak eta kooperatibak aritu ziren.

Lehen egunean unibertsitateko gizarte ekonomiari buruzko unitate didaktikoak aurkeztu zituzten Mondragon Unibertsitatea/HUHEZik eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak eta Hezkuntza Sailak. Bigarren egunean TFG-TFM Mondragon Sariak eman ziren eta, gainera, EAEko gizarte ekonomiako familiek gizarte ekonomiari buruzko unibertsitateko prestakuntzaren inguruko hausnarketa-ponentzia bat eman zuten.

4.3. Proiektu Esperimentalen Jardunaldia

2023ko urriaren 11n, Bilboko Yimby aretoan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegua Sailak eta Lanbidek bultzatutako gizarteratzeko eta laneratzeko programa esperimentalak aurkeztu ziren. Programa horiek Inklusiorako V. Euskal Planaren barruan abiatu dira, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legeak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Jardunaldira 150 pertsona baino gehiago bildu ziren. Lehen atalean ibilbide mistoak landu ziren, hau da, ibilbide pertsonalizatuak garatzeko sareko arreta intersektorial koordinaturako proiektuak. Lehenbizi, Lanbideko Prestazioen eta Inklusioaren zuzendariak inguruabarrak azaldu zituen eta esparru teorikoaren berri eman zuen. Ondoren, mahai-inguruan aritu ziren landu diren 14 ibilbideetako hirutako lantaldeen ordezkariak.

Jardunaldiaren bigarren atalean, Lanbidek Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren Policy Lab-ekin eta NextGenerationEU funtsekin

lankidetzan garatu dituen gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza integraleko proiektuei buruz hitz egin zen. Lanbideko zuzendari nagusiak inguruabarrak azaldu zituen eta ondoren jardunbide onei eta hobetzeko aukerei buruzko eztabaida izan zen, bultzatutako 15 proiektu pilotuetako hiru bertan zeudela.

Hirugarren eta azken blokean Inklusiorako V. Euskal Planeko proiektu esperimentalak azaldu ziren. Lehenbizi, Enplegu eta Gizarteratzeko sailburuordeak aurkezpena egin zuen; ondoren, proiektu horietako hiru azaldu ziren.



Sara Buesa, Alfonso Gurpegui, Idoia Mendia, Elena Pérez eta Francisco Pedraza Proiektu Esperimentalen Jardunaldian



5.

Lanbide

lankidetza estatuan
eta nazioartean

5.1. Behatokien sareak

Estatuko behatokien sarea - ROCCAA

Lanbide lankidetzan aritzen da Estatuko autonomia erkidegoetako enplegu behatokien sarearekin (ROCCAA). Sare horretan autonomia erkidegoetako enplegu zerbitzu publikoak daude, eta beraren helburua da lan-merkatuaren ezagutzaren eta analisiaren inguruko sare-lana eta esperientzien eta metodologiaren trukea bultzatzea.

2023an, Lanbide Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) deitutako bilera birtual batean izan da; bertan Estatuko autonomia erkidego guztietako behatokiak bildu ziren. Bileran hartan SEPEk herritarrentzako plataforma berria (web orria) aurkeztu zuen: autonomia erkidegoetako lan-merkatuaren behatokien eta lan-merkatuarekin loturaren bat duten entitate guztien topagunea da. Hain zuzen ere, behatoki horiek egiten dituzten jardueren barri zabaltzeko kanala da: argitalpenak, bideoak eta agenda, besteak beste.

Europako behatokien sarea - EN RLMM

Europako Lan-merkatuaren Erregioetako Behatokien Sarea (European Network on Regional Labour Market Monitoring -EN RLMM-) 2006an sortu zen Frankfurt-eko (Alemania) Goethe Unibertsitatean.

Sare horren helburua da lan-merkatu erregionalak arakatzeko erabiltzen diren kontzeptuak eta tresnak sustatzea eta beren berri zabaltzea, eta merkatuok aztertzeko, ikertzeko eta analizatzeko erabiltzen diren metodoen berri zabaltzea. Horretarako, Europako erregioetako profesionalen ezagutza zientifikoak eta esperientziak biltzen ditu. Gainera, Europa osoko erregioetako eta toki erakundeetako lan-merkatuak sortzeko eta horien arteko sareak eratze laguntza ematen du.

EN RLMM sarean erregioetako eta toki-erakundeetako lan-merkatuei buruzko teorian eta haiek aztertzeko metodoetan eta aplikazioetan prestakuntza sendoa daukaten nazioarteko 400 kide baino gehiago daude. Sareko kideen artean Europako 32 estatutako lan-merkatuaren ikertzaileak daude, bai eta erregioetako eta toki-erakundeetako lan-merkatuaren behatokien ordezkariak, lan-merkatua kudeatzen duten politikariak, enplegu-zerbitzu publikoak, estatistika-bulegoak eta aholkularitzak ere.

2023an, sare horretan kideen artean informazioa trukatzeko antolatu diren jarduerak haurtan hartu du parte Lanbidek:

- “Klima-aldaketaren erronkaren eragina Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuan eta administrazio-datuen analisi baten emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuko joerak detektatzeko” izeneko artikulua egin du Sarearen 2023ko antologiarako (“Lan-merkatuak ekologizatzeko bideak”).
- Sarearen 2023ko bileran parte hartu du (Potsdam, Alemania). Han egindako jardunaldien artean aipagarria da Lanbide txostengilea izan zela workshopetako batean: “Erregioetako lan-merkatuen eraldaketa neurtzen”. Horren ildotik, aurreko puntuan aipatutako artikuluko ondorio nagusiak azaldu ziren; artikulua helburua zen neurtzea zer eragin eduki duen orain arte enpleguan Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuaren ekologizazioak.

5.2. Eures sarea

Lanbide, sortu ondoren, EURES sarean sartu zen, eta 2016az geroztik enpleguko lankidetzarako eta langileen zirkulazio aserako sare horretako eskubide osoko kidea da. Sareko kideak Europako Esparru Ekonomikoko (EEE) eta Suitzako enplegu-zerbitzu publikoak eta beste entitate batzuk dira, eta beren helburua da enpresei eta langileei informazioa eta aholkuak ematea eta kontratatzen laguntzea, batik bat.

EURES sarean 1.000 aholkulari baino gehiago ari dira Europa osoan. Lanbiden hiru aholkulari daude, bat lurralde historiko bakoitzean; aholkulari horiek Laneratze Zerbitzuko buruak koordinatzen ditu. Hala ere, 2023. urtean, bi aholkulari baino ez dira aritu sarean ia urte osoan. Zerbitzu hau Europar Batasunaren eta estatuen lantaldeetan oinarritzen da bere jardunerako; lantalde horiek Batasunaren eta estatuen koordinazio bulegoek koordinatzen dituzte.

2023. urtean, ohiko lanari jarraikiz, enpresei zein lan bila ari diren pertsonen (banaka zein taldeka) informazioa eta aholkuak emateko ekitaldietan parte hartu du Lanbidek.

EURES sarearen zenbait ekitalditan izan da Lanbide (linean eta bertaratuta): "European Job Days", "Merkalan", UPV/EHUK hiru lurralde historikoetan egindako enplegu-foroak, Deustu Unibertsitatearen foroak, "WorkInn", Portugaleteko "Crash!" azoka eta Irun eta Hendaiako mugaz gaindiko azokak, besteak beste. Gainera, kolektibo jakin batzuentzako saioak egin dira, unibertsitateekin (UPV/EHU eta Deustukoa) lankidetzan, bai eta Ekonomialarien Elkargoarekin, Europe Directekin eta Txorierriarekin ere. Halaber, EURESek zuzenean parte hartu du enpleguaren

komunitate digitala sortzen.

Sareak lantaldeetan egin duen lanari dagokionez, Eskandinaviako Herrialdeetako eta Alemania/Austriako lankidetzak Zubi Iraunkorren (LZI) bitartez zenbait hautapen-prozesu egin dira, batez ere Suediarako (albaitariak, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleak, eta sukaldariak) eta Alemaniarako (hezitzaileak, auto-gidariak eta geriatria).

Aurreko urteetan bezala, 2023an ere EURES-Lanbidek parte hartu du Jarraipen, Prozedura eta Prestakuntzako lantaldeetan (EURES-Espainiaren jardura-txostenak, Estatuko sareko kide berrien prestakuntza eta etengabeko prestakuntzaren antolamendua) eta Komunikazioa eta Sare Sozialak lantaldean (sareari buruzko informazioa eta egiten dituen jardueren berri Europa osoan zehar zabaltzen).

Lanbideren web orrian EURES sareko beste herrialde batzuetako lan-eskaintzak agertu dira eta Euskadiko lan-eskaintzak EURESen atarian azaldu dira.

Mugaz gaindiko jarduna ohi bezalakoa izan da, Pole-Emploi-rekin lankidetzan, eta 2023. urtean Hendaiako nazioarteko topaketan izan gara, mugaz gaindiko jarduerak eta lankidetzak sustatu nahian. Arlo horretan, lankidetzak estuan aritu gara Euroeskualedearekin eta Frantziako enplegu-zerbitzuarekin, ohi bezala.

Guztira, 2023. urtean enplegu bila ari ziren pertsonen 2.000 kontsulta inguru jaso dira eta enpresen 100 kontsulta inguru, 150 kontaktu izan dira kanpoko entitateekin, eta 56 pertsonak enplegua lortu dute EURES Euskadiren orientazioari esker.

5.3. Erasmus +: ACSOL

2021eko maiatzetik 2023ko apirilera arte Lanbide buru eta koordinatzaile aritu da Covid-19aren ondorioz egoera zaurgarrian izan diren bi sektoretako kualifikazio baxuko pertsonen gaitasun digitalen inguruko prestakuntza emateko proiektu batean: zainketa asistentzialen sektorea eta aisialdiaren, artearen eta kulturaren sektorea.

Ekitaldi hori Europako Erasmus + programaren barruan egin da. Programa horren deialdian, Lanbidek honako hau aurkeztu zuen: "ACSOL: Acquiring crisis-proof skills through online learning" - eLearning-eko tresnak kualifikazio baxuko pertsonak gaitasun digitalean prestatzeko -. Proiektu horren helburua izan da pandemiak eragin handia izan duen bi sektore horietako helduak gaitasun digitalean prestatzea online ikaskuntzaren bidez.

Horren ildotik, honako xede hauek ezarri dira: (i) profiletara egokitutako prestakuntza lortzea; (ii) bi jardura-sektore horietako eraldakuntza digitalerako gakoak diren gaitasunak zehaztea, lanpostu horietako erronkak eta aukerak kontuan edukita; (iii) etengabeko ikaskuntza pertsona horientzat lehiarako abantaila izatea; (iv) enpresaburuak eta Europar Batasuneko lanbide heziketako arduradunak ohartzea zein garrantzitsuak diren gaitasun digitalak etengabeko ikaskuntza lan-merkatuan langile kualifikatuak egon daitezen.

Proiektu honetan Lanbidek honako kide hauek eduki ditu: Trade Union Congress - TUC (Erresuma Batua), The University of Exeter (Erresuma Batua), Università degli Studi di Milano-Bicocca (Italia), West University of Timișoara (Errumania), Otto von Guericke Universität Magdeburg (Alemania) eta Prospektiker enpresa (EAE), prospektiban eta azterlan estrategikoetan espezializatua.

2023ko ekitaldian proiektua amaitu da. Urte horretan honako jardura hauek egin dira, besteak beste:

- Acsol TOOLKIT online prestakuntzako tresna garatu da, edukiak prestatu dira eta azken produktua abian ipini da. Tresna hori erabilgarri dago Lanbideren web orrian, eta erabiltzeko jarraibideen gida azkarra ere badago.
- Tresnaren proba pilotua egin da bi sektoreetako erabiltzaileekin aztertu diren herrialde/erregio guztietan.
- Proiektuaren berri zabaltzeko ekitaldia antolatu da Bilbon eta lanbide burutza aritu da. Ekitaldian proiektuko Europako kideak izan ziren, bai eta bi sektoreetako enpresak, erakundeak eta prestakuntzako entitateak ere.



ACSOL proiektuaren logoa



6.

Lanbide

azterlanak eta
estatistikak

Urtero egin ohi duen bezala, 2023an ere Lanbidek zenbait arlotako txostenak, analisiak eta estatistikak egin eta argitaratu ditu: lan-merkatua, hezkuntza-sistema laneratzeko prozesuan txertatzea, gizarte-kohesioa eta prospektiba kuantitatiboa eta kualitatiboa.

6.1. Lan-merkatua

Txostenak, analisiak eta estatistika kuantitatiboak eta kualitatiboak egin dira lan-merkatuaren egoeraz eta zenbait kolektibo, sektore eta entitatearen bilakaeraz. Txostenak egiteko Lanbidek berak egindako estatistikak eta administrazio-erregistroak erabili dira, eta beste batzuenak ere bai (Biztanleria Jardueraren Arabera - BJA, Biztanleria Aktiboaren Inkesta - BIA, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioa, Eurostat eta EAEko clusterren informazioa, besteak beste).

Hauexek izan dira jardun-eremu nagusiak: langabezia, lan-eskatzailak, lan-eskaintzak, kontratazioak eta kalitatearen/prekarietatearen adierazleak.



6.2. Hezkuntza-sistema laneratzeko prozesuan txertatzea

Unibertsitate-prestakuntzako sistematik (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) eta prestakuntza arautuko lanbide heziketako sistematik irten diren pertsona guztiei eta Lanbidek kudeatzen dituen enplegurako lanbide-heziketako ekintzen bidez profesionaltasun-ziurtagiria lortu duten pertsona guztiei egindako inkesten bidez bildutako informazioan oinarrituta, ehun txosten baino gehiago egin dira. Txosten horietan kolektibo bakoitzaren laneratzeko prozesuaren zenbait alderdi zehazten dira, unibertsitate-graduaren eta lanbidearen arabera xehatuta: soldata, kontratu-mota, lan egiten den enpresaren jarduera-sektorea, lanbidea, txertaketa eta lan-mugikortasuna, besteak beste.

2023an eragiketa hori 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren barruan egin da.

6.3. Gizarte-kohesioa

Zenbait txosten egin dira diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) jasotzen duten pertsonen, etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jasotzen duten pertsonen, horiekin bizi diren pertsonen eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) jasotzen duten pertsonen buruz. Txosten horietan analisi zehatzak eta estatistika kuantitatiboak zein kualitatiboak erabili dira pertsona horien inguruko zenbait alderdi argitzeko: egungo egoera, bilakaera historikoa, joera nagusiak, kolektibo onuradunak, lotutako osagarriak eta eremu geografiko nagusiak, besteak beste.

2023an eragiketa hori 2023-2026 Euskal Estatistika Planaren barruan egin da.

6.4. Prospektiba kualitatiboa eta kuantitatiboa

2023an ere lanbidek prospektiba kuantitatibo eta kualitatiboko analisiak egin ditu, lan-merkatuak nondik joko duen igartzeko. Hain zuzen ere, 2023. urtean honako lan hauek egin dira:

- Futurelaneko 2023ko datu estatistikoak eguneratu dira.
- 2035. urtera arteko lanaren eta sektorearen gaineko prospektiba-eredua eguneratu eta dimentsionatu da.
- Prestakuntza orokorreko eta sektore publikoko beharrianen proiektzioak sartu dira.
- Aurrera egin da zaintza prospektiboaren prozesuan, egungo egoeran garrantzitsuak diren faktore estrategikoak identifikatzeko eta sistemako aldagai gakoak kontrolatzeko, etorkizunari begira.





7.

Lanbide

kalitatea eta
ebaluazioa

7.1. Programen eta Zerbitzuen Kalitatea


Programen eta zerbitzuen kalitatea direla eta, ondoren lan-eskatzaileek tokiko enplegu-bulegoez zer iritzi duten azalduko da, eta lan-eskatzaileek eta enpresek eskaintzen zaizkien programez eta zerbitzuez zer uste duten ere bai.

Tokiko enplegu-bulegoei buruzko iritzia

Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zerbitzuak eskaria aztertzeko eta gogobetetzea neurtzeko programa orokorra (SQSA) ipini zuen abian 2016an. Horren esparruan, eta Lanbidek tokiko enplegu-bulegoetan ematen dituen zerbitzuez lan-eskatzaileek zer uste duten jakin nahirik, horri buruzko jarraipen-txostenak egin dira.

Ondoko grafikoko indize orokorrak erakusten duen bezala, urtean baino urtean hobia da tokiko enplegu-bulegoetako zerbitzuei buruzko iritzia, pandemiak 2020. urtean eragin zuen eten laburra alda batera utzita. Gorakadaren etenaldia erabat zuzendu zen hurrengo urteetan, eta 2023an baloraziorik hoberena izan zen: 8 puntu 10etik. Hain zuzen ere, tokiko enplegu-bulegoetan aurrez aurre jasotako arretaren inguruko iritzia oso ona izan da 2023an: 8,4 puntu 10etik.

Tokiko enplegu-bulegoetako zerbitzuei buruzko iritzia: indize orokorra (2016-2023):



Iturria: Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. 2016 - 2023 Osasun Inkesta.


Egilea: Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zerbitzua – Kabinete Teknikoa

Eskaintzen diren programei eta zerbitzuei buruzko iritzia

Lanbidek eskaintzen dituen programekin eta zerbitzuekin (moten arabera multzokatuta) pozik dauden pertsonen eta enpresen portzentajeak kalkulatzeko metodoa Enplegu Zerbitzu Publikoen Europako Sarean erabiltzen dena da (PES-Benchlearning ebaluazioa), eskalen irizpideak bateratzeko.

Ia erabiltzaile guztiak pozik daude (lana eskatzen duten pertsonen % 93 eta langile bila ari diren enpresen % 92). Aipagarria da zein ona den langabeentzat eta landunentzat eskaintzen diren prestakuntzako zerbitzuei buruzko iritzia (pertsonen % 97 pozik daude); orobat, enpresek iritzi ona dute Lanbidek lan-eskaintzak kudeatzeko moduz eta ondoren egiten duen bitartekaritza-lanaz (enpresen % 97 pozik daude).

Lanbideren lanaz pozik dauden pertsonen eta enpresen portzentajeak, programen eta zerbitzuen arabera (2023):



Iturria: Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua. Gogobetetasun-inkesta 2016 - 2023 Egilea: Kalitatearen eta Ebaluazioaren Zerbitzua – Kabinete Teknikoa

Oharra: Ebaluazioaren emaitzak ehunekoetan ematen dira, egindako ebaluazioak erreferentziatzat hartuta. Batetik, pozik dauden ehunekoa, eta bestetik, pozik ez daudenena; alde batera utzi dira tartekoak (neutroa) eta "ez daki/ez du erantzun" multzokoak. Batura % 100 izan behar da.

7.2. Programen eta Zerbitzuen Ebaluazioa

Programen eta zerbitzuen ebaluazioa dela eta, aurreko urteetan bezala 2023an ere jarraipen eta ebaluazioko prozesuak bultzatu dira, barruan zein kanpoan, ikuspegi kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiliz. Besteak beste, laguntza haven eraginaren ebaluazioa egin da: (i) enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzak; (ii) 2014-2020 Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzeako laguntzak; (iii) Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeentzako prestakuntza-ekintzak egiteko laguntzak (kontratatzeako konpromisoarekin). Gainera, ebaluazio hauek egin dira:

- Enplegu-politikako urteko planean ari diren laneratze-enpresen ebaluazioa hiru dimentsiotan: diseinua, prozedura eta emaitzak.
- BGDSren edota DSBEren hartzaileei gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko proiektu integralaren ebaluazioa.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren pizgarri-sistemaren ebaluazioa.
- Ekitaldian zehar hasitako ibilbide mistoetan laguntzeko proiektu esperimentalen ebaluazioa.

Gainera, beste ekimen batzuk ere izan dira Enplegu Sistema Nazionalaren esparruan: PES-Benchlearning ebaluazioa; enplegurako lanbide heziketaren sistemaren kalitatea, eragina, eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzeako urteko plana; enplegu duina sustatzeko urteko planak. Halaber, autonomia erkidegoetako eta Europako enpleguaren arloko esparru estrategikoen jarraipenean eta ebaluazioan ere aritu da Lanbide.

Hori dela eta, ebaluazioen emaitzak kontuan eduki dira egun ematen diren programak eta zerbitzuak hobetzeko eta jarduketa berriak diseinatzeko eta programatzeko.



8.

Lanbide

2023ko kopuruak:
emaitzen laburpena

Eskariaren egitura

(Guztirako kopurua, urteko batez bestekoa, eta 2021-2023 aldiko bilakaera)

Enplegu-zerbitzuen edo enplegua
hobetzeko zerbitzuen eskatzaileen
kopurua

289.932

-22,0%

Emakumeak: **58,7%** < 30 urte: **16,2%**
Gizonak: **41,3%** 30-45 urte: **32,1%**
> 45 urte: **51,7 %**

Gainera, enplegu-zerbitzuen eskatzaileak izanik
lan-merkatuan sartu ez direnak, **19.213**
izan dira.

Lanbiden erregistratutako
langabe-kopurua

108.515

-11,6%

Emakumeak: **57,8%** < 30 urte: **15,7%**
Gizonak: **42,2%** 30-45 urte: **29,3%**
> 45 urte: **55,0 %**

Pertsonentzako zerbitzuak

(Aldagai bakoitzaren guztirako kopurua eta 2021-2023 aldiko bilakaera)

Lanbideren zerbitzuren bat jaso duten pertsonak, guztira:

186.904

-5,6%

Bilakaeran eragina izan du lan-eskatzailer gutxiago egoteak eta enplegua hobetu nahian dabilizanak gutxiago izateak.

Prestakuntzako ekintzetan parte hartu duten pertsonak:

101.354

+4,5%

Prestazioen titularrei edo onuradunei egin zaizkien laneratze-zerbitzuak:

229.665

-5,6%

Bilakaeran eragina izan du DSBE pertsona gutxiagok jasotzeak.

Laneratze eta gizarteratzeko orientazioa jaso duten pertsonak:

161.180

+27,3%

Ekintzailerentzako laguntza jaso duten pertsonak:

1.871

+4,4%

Desgaitasunen bat eduki edo bazterketa-arriskuan egonik zerbitzuren bat jaso duten pertsonak:

11.036

+7,1%

Pertsonentzako zerbitzuak - Prestazioak

(Aldagai bakoitzaren guztirako kopurua, urteko batez bestekoa, eta 2021-2023 aldiko bilakaera)

DSBE jaso duten
pertsonak

52.554

-2,1%

Emakumeak: **29.962**
-3,6%

Gizonak: **22.592**
-0,1%

BGDS prestazioaren
titularrak*

21.961

Emakumeak: **13.281**

Gizonak: **8.680**

* Prestazio hau 2022an jaso zenez, ez dago bilakaera-daturik.

Sortutako edo sustatutako enplegua – Pertsonak kontratatzeako laguntzak

16.858 kontratu lagundu dira diruz 1.454 enpresa eta entitatetan

Kontratazio-laguntzetarako programak	Diruz lagundutako kontratu-kopurua	Diruz lagundutako enpresa / entitate kopurua
Desgaitasunen bat duten pertsonak	132	107
Lana eta familia bateragarri egitea	541	227
Lehen Aukera	950	635
Errelebo kontratua	139	120
Tokiko ekintzetarako laguntzak	2.016	54
Gazteen kontratazioa EGF+ programan	276	31
Gazteen Enplegua	266	97
Enplegu-zentro bereziak	10.725	85
Laneratze-enpresak	901	41
Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Lehentasunezko arretako kolektiboak	437	30
Gizarteratzeko proiektu pilotuak (BGDS/DSBE)	179	14
Morrokotudak	15	5
Enplegu laguntzaduna	281	8
Guztira	16.858	1.454

Enpresentzako zerbitzuak

(Aldagai bakoitzaren guztirako kopurua eta 2021-2023 aldiko bilakaera)

Zerbitzuren bat jaso duten
enpresak:

9.676

+4,5%

Enpresentzako lineako
aholkularitza-zerbitzuaren bidez jaramon
egindako kontsultak::

7.792

-9,6%

Eskaintzak kudeatzeko zerbitzua
erabili duten enpresen kopurua:

5.704

+3,4%

Enpresentzako prestakuntza-ekintzetan
parte hartu dutenak:

11.526

+1,3%

Bitartekaritza

(Aldagai bakoitzaren guztirako kopurua eta 2021-2023 aldiko bilakaera)

Lanbideri eta beraren
laguntzaileei
(enplegu-agentziei)
eskainitako lanpostuak:

25.342

+36,2%

Lanbidek kudeatutako
lanpostuetara aurkeztutako
hautagaiak:

220.684

+24,7%

Emakumeak:

102.015

+32,6%

Gizonak:

118.669

+18,5%

Lanbidek kudeatutako
lanpostuetarako
kontrataturako pertsonak:

9.100

+20,7%

Emakumeak:

4.210

+21,3%

Gizonak:

4.890

+20,1%

Laneratzeta: emaitzak
(Aldagai bakoitzaren 2023ko datua)

161.180

lagunek eskatu dituzte
Lan orientazioko
zerbitzuak



Horietatik **147.564**
enplegu-eskatzaileak izan
dira, eta langabezian
zeuden lehen zerbitzua
jasotzeko unean



Horietatik **53.542**
kontratu bat lortu dute
hurrengo 6 hilabetetan

2023ko aurrekontua, programaka xehatuta

2023ko ekitaldian, aurreikusitako aurrekontuaren % 94 exekutatu da.

Programa	Hasierako aurrekontua	Exekutatutako aurrekontua	Exekutatutako %
Gizarte inklusioa (inklusioa + prestazioak)	789.572.904,64 €	772.462.681,88 €	98%
Enplegua (sustapena + enpresak + laneratzea)	219.370.854,45 €	211.170.373,88 €	96%
Prestakuntza	134.755.148,23 €	118.282.519,48 €	88%
Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza* (Baliabide orokorrak)	39.963.879,02 €	34.134.236,16 €	85%
Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismo	56.655.126,69 €	24.792.981,85 €	44%
COVID-19k eragindako krisiaren aurkako neurriak**	- €	478.313,58 €	-
Guztira	1.240.317.913 €	1.161.321.107 €	94%

Oharrak:

*) Zerbitzu hauek: antolamendua, pertsonala, juridikoa, ekonomikoa, informatika, IAZ, kabinetea eta BKU

**) COVID-19 programak kudeatzeko kontratatutako premialdiko langileak

Exekutututako aurrekontuaren bilakaera, programaka xehatuta

(2021, 2022 y 2023)

Programa	2021	2022	2023
Gizarte inklusioa (inklusioa + prestazioak)	454.480.539 €	543.808.255 €	772.462.682 €
Enplegua (sustapena + enpresak + laneratzea)	234.454.399 €	295.434.210 €	211.170.374 €
Prestakuntza	108.879.396 €	114.819.286 €	118.282.519 €
Lana eta Enplegua. Egitura eta Laguntza* (Baliabide orokorrak)	28.847.404 €	32.294.419 €	34.134.236 €
Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismo	- €	40.347.833 €	24.792.982 €
COVID-19k eragindako krisiaren aurkako neurriak**	3.499.402 €	2.287.345 €	478.314 €
Guztira	830.161.140 €	1.028.991.348 €	1.161.321.107 €


Oharrak:

*) Zerbitzu hauek: antolamendua, pertsonala, juridikoa, ekonomikoa, informatika, IAZ, kabinetea eta BKU

**) COVID-19 programak kudeatzeko kontratatutako premialdiko langileak

Lanbidek exekutatuak aurrekontua, programaren arabera.

2023 urtea; %





Lanbide



EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Lanbide[®]

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO